# gaurko filmak

**Un cadáver a los postres** ★★★
Zuz.: Robert Moore. 91m. AEB. 1976. **11:00 La2**

**El muchacho de Oklahoma** ★★★
Zuz.: Michael Curtiz. 88m. 1954. **18:20 ETB2**

**Divine mais dangereuse** ★
Zuz.: Harald Zwart. 90m. AEB. 2001. **21:00 C+(e)**

**La hija del general** ★
Zuz.: Simon West. 112m. AEB. 1999. **22:00 A3**

**Bwana** ★
Zuz.: Imanol Uribe. 85m. Esp. 1996. **22:40 Arte**

**Une question de vie ou de mort** ★★
Zuz.: M. Powell, E. Pressburger. 1946. **00:05 Arte**

**Le créateur** ★★
Zuz.: Albert Dupontel. 90m. Fran. 1999. **00:35 M6**

**Entre el amor y el juego** ★★
Zuz.: Sam Raimi. 92m. AEB. 1999. **01:37 C+(e)**

**La ley de Las Vegas** ★
Zuz.: Nelson McCormick. 89m. AEB. 1997. **03:00 La2**

**Demasiado profundo** ★
Zuz.: David Dobkin. 100m. AEB. 1998. **03:50 C+(e)**

**La Biblia: David (II)** ★★
Zuz.: Robert Markowitz. 175m. 1997. **04:30 A3**

**Al sur del Pacifico** ★
Zuz.: R. Pearce. 86m. AEB. 2001. **05:35 C+(e)**

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |


Ane Muñoz

**KOMEDIA** ★★★
**Un cadaver a los postres** Zuz.:Robert Moore La 2 11:00

## Oklahomako 'sheriff'-aren amets galduak

**EL MUCHACHO DE OKLAHOMA** ★★★ **ETB2 - 18:20**

Zuz.: Michael Curtiz. Akt.: Nancy Olson, Wil Rogers Jr. 88 min. 1954.

Michael Curtiz zuzendariak Mendebalde Urrunean kokatutako abentura zahartxo hau ez da nabarmentzekoa zuzendari horren filmografia luzea osatzen duten filmen artean. Bestalde, txukun errealizatua dago, eta, oro har, ikusgarria da. Protagonista, Will Rogers Jr.ek antzeztua, gaztetan bere herriko *sheriff*-a izatearekin amestu zuen gazte azkarra da. Urte batzuen ondoren, gazteak helburua beteko du, baina laster ohartuko da ez dela hain erraza ordena mantendu eta gaizkileei aurre egitea. Aurpegi ezagunen artean, Lon Chaney Jr. eta Nancy Olson azaltzen dira. Entretenigarria da.

**UN CADAVER A LOS POSTRES**
★★★ **La 2 - 11:00**

Zuz.: Robert Moore. Akt.: David Niven, Peter Sellers. 91 min. AEB. 1976.

Polizia komedia arin eta entretenigarri honekin oso tarte atsegina igaro dezakezue, goizean. Robert Moore zuzendariak David Niven, Peter Sellers komikoa eta Peter Falk *Colombo* ikertzaile mitikoa elkartu zituen, eta oso hirukote erakargarria osatu zuten, haien erokeriei esker filma are dibertigarriagoa eginez. Gertatzear dagoen hilketa baten berri emango digute; Niven aberatsak bi ikertzaile kontratatuko ditu, hiltzailea harrapatu dezaten.

**BWANA**
★ **Arte - 22:40**

Zuz.: Imanol Uribe. Akt.: Andres Pajares, Maria Barranco. 85 min. Espainia. 1996.

Uribek patera bidez Espainiarantz hurbildu ohi diren etorkin afrikarren errealitate gordina abiapuntutzat hartu zuen drama herren hau filmatzeko. Istorioa, berez, Ignacio del Moralen antzezpen batean oinarritua dago, Uribek grazia gutxirekin pantailaratua. Andres Pajares eta Maria Barranco bikoteak ustekabean Emilio Buale, Espainiako zinemagintzako ezinbesteko aktore beltza topatuko du Hegoaldeko hondartza batean.

**UNE QUESTION DE VIE OU DE MORT**
★★ **Arte - 00:05**

Zuz.: M Powerl, Emeric Pressburger. Akt.: David Niven, Kim Hunter. 100 min. EB. 1946.

Asteazken honetan agerpen bikoitza eginez datorkigun David Niven dotoreak rol nagusia jokatzen du Powell eta Pressburger bikoteak 40ko hamarkadan filmatutako fantasiazko melodrama polit honetan. Abiadore hil berri batek Lurrean geratzeko baimena eskatuko du Zeruan, hil aurretik emakume lirain batekin maitemindu berri baita. Zuribeltzeko irudiak kolorezkoekin nahasiz, zuzendariok lantxo txiki baina zuzen eta atsegina lortu zuten. Jatorrizko izenburua *A Matter of Life and Death* da, Hegoaldean *A vida o muerte* bezala estreinatua.

**ENTRE EL AMOR Y EL JUEGO**
★★ **C+(e) - 01:37**

Zuz.: Sam Raimi. Akt.: Kevin Costner, Kelly Preston. 92 min. AEB. 1999.

Sam Raimiren fantasia gore basatiarekin ohituta zaudetenei harritu egingo zaituzte Kevin Costnerren luzimendurako sortutako drama zozo hau zinemagile bitxi horrek zuzendua dela jakiteak. Raimik eredu komertzialei eutsiz pantailaratua, beisbol jokalari heldu baten inguruko istorioa erakusten du. Haren bizitzak erabateko aldaketa jasango du 20 urtez talde berean jokatu ondoren beste batera bidaliko dutela jakingo duenean, eta, bitartean, emazteak utzi nahi duela jakinaraziko dionean.

**LA LEY DE LAS VEGAS**
★ **La 2 - 03:00**

Zuz.: Nelson McCormick. Akt.: William Forsythe, Conchita Alonso. 89 min. AEB. 1997.

Besteak beste William Forsythek eta Maria Conchita Alonsok protagonizatzen duten ohiko telefilm estatubatuar honek Las Vegasen kasino bat eraiki eta hantxe aberastea amesten duen Rochetti anbiziodunaren istorioa biltzen du. Ezusteko gutxi eskaintzen duen polizia drama txikia da.

**ETB-1**

**07:00:** Tik tak circus.
**07:30:** Betizu.
Hartz txiki.
Pingu.
Doraemon, katu kosmikoa.
Hirukiak.
**09:00:** Betizu taldea.
**09:35:** E-klipse@.
**09:55:** Bidaide.
Aurora 2001.
Sumendietako detektibeak.
**10:55:** Baietz gogoratu.
**12:15:** Abenturen planeta.
**12:40:** Bisutsaren hozkada.
**13:35:** Betizu.
Shin Chan.
**14:00:** Gaur egun.
Albistegia.
**14:45:** Postdata.
**14:45:** Goenkale.
**15:15:** Gag gag.
**15:45:** Bidaide.
Naturan nonahi.
**16:40:** Travel notes.
**17:15:** Chiloe.
Palmira, elezaharretako hiria.
**17:40:** E-klipse@.
**18:00:** Iparraldearen orena.
**18:05:** Betizu.
**20:28:** Gaur Egun.
Albistegia.
**21:05:** Bertatik bertara.
**21:45:** Goenkale.
Telesaila.
**22:25:** Basetxea.
**23:35:** Kirolez kirol.
**00:05:** Postdata.
**00:10:** Hau komeria.
**00:30:** Goenkale.
**00:55:** Bakarrik.
**02:55:** Bertatik bertara.
**03:30:** E-klipse@.
**04:05:** Esanak esan.
**04:40:** Euskal Herritik.
**05:10:** 1 bitan.
**06:20:** Ikusgela.

**TVE1**

**06:00:** Canal 24 horas.
Albistegia.
**07:30:** Telediario matinal.
Los desayunos de TVE.
Gonbidatua: Joaquin Gimenez.
**10:15:** Nano.
Telesaila.
**11:00:** Por la mañana.
*Saber vivir.*
*Asi son las cosas.*
*La cocina de Karlos Arguiñano.*
**14:00:** Informativo territorial.
Albistegia.
**14:30:** Corazon de otoño.
Anne Igartiburuk aurkeztutako magazin saioa.
**15:00:** Telediario 1.
Albistegia.
**16:00:** Eguraldia.
**16:05:** Geminis.
Telesaila.
**16:40:** Secreto de amor.
Telesaila.
**17:50:** Cerca de ti.
Magazina.
**18:50:** El rival mas debil.
Nuria Gonzalezek aurkeztutako lehiaketa saioa.
**20:00:** Gente.
Pepa Bueno eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako magazin saioa.
**20:40:** Futbola.
Milan - Deportivo.
Atsedenaldian Albistegia.
**22:35:** El show de Flo.
**00:35:** Ley y orden.
**01:30:** Telediario - 3. Albistegia.
**02:00:** La banda de Perez.
Telesaila.
**03:00:** Canal 24 horas.
Albistegia.

**ETB-2**

**07:00:** Mucho viaje.
**07:25:** Del pais de los vascos.
**07:55:** Clasicos en serie.
La casa de la pradera.
Los Angeles de Charlie.
**09:30:** Forum.
Gonbidatua: Ana Diez.
**10:00:** El punto.
Gonbidatua: Odon Elorza.
**10:30:** Pacific blue.
Telesaila.
**12:30:** Tequila y Bonetti.
Telesaila.
**13:30:** Euskadi directo.
Navarra directo.
**13:55:** Date el bote.
Leihaketa.
**14:58:** Teleberri. Albistegia
**15:45:** Lo que faltaba.
Magazina.
**18:20:** Zinema.
**El muchacho de Oklahoma**
Zuz.: Michael Curtiz.
Akt.: Nancy Olson, Will Rogers Jr. 1954.
**20:00:** Esta es mi gente.
Izaro Iraetak aurkeztutako magazin saioa
**20:58:** Teleberri. Albistegia.
**21:45:** Doble juego.
**23:45:** El factor humano.
*Tocados por la fama.*
**01:00:** Senderos misteriosos.
Telesaila.
**02:50:** Mike Hammer.
Telesaila.
**03:40:** Esta es mi gente.
**05:45:** Forum.
**06:15:** El mundo de los hongos.
**06:35:** Recetas de la abuela.

**A3**

**07:00:** Buenos dias, España.
(09:15) El primer cafe.
**10:30:** A plena luz.
Pedro Piqueras eta Yolanda Alzolak aurkeztutako magazin saioa.
**13:30:** Ahora express.
**14:00:** Informativos territoriales.
Albistegia.
**14:30:** Los simpson.
Marrazki bizidunak.
**15:00:** Noticias.
Albistegia.
**16:00:** Sabor a ti.
Magazina.
**19:00:** El diario de Patricia.
Magazina.
**20:00:** Pasapalabra.
Lehiaketa.
**21:00:** Noticias 2. Albistegia.
**22:00:** Zinema.
**La hija del general**
Zuz.: Simon West.
Akt.: John Travolta, Madeleine Stowe. 1999.
**01:00:** Sin limites.
**01:45:** Noticas .
Albistegia.
**02:15:** The pretenders.
Telesaila.
**03:00:** Televenta.
**04:30:** Zinema.
**La Biblia: David (II)**
Zuz.: Robert Markowitz.
Akt.: Jonatha Pryce, Franco Nero. 1997.
**06:00:** Canal noticias.
Albistegia.

# irratia




**RADIO EUSKADI.** EAJko bozeramaile Joseba Egibar elkarrizketatuko dute goizeko 09:15 aldera *Boulevard* irratsaioan. Bestetik, langabeziaren igoeraz mintzatuko dira. Loteria ere hizpide izango da programa horretan. Arratsaldeko 17:00etan, *La jungla sonora* saioan, Jeremias Venezuelako kantariaren kontzertu akustikoa entzuteko aukera izango da.

**EUSKADI IRRATIA.** Antonio Bolas zegamarraren pasarteak jasotzen dituen liburu baten berri emango du Joxantonio Ormazabalek, *Lauretan babel* irratsaioan. Beterriko kantu zaharrak biltzen dituen diskoaz ariko da Leire Ibañez. Azkenik, Sebas Izeta mekanikoaren bisita izango dute arratsaldeko magazinean.

**HERRI IRRATIA.** Aste honetako *Komatxo artean* saioan Jose Angel Irigaray idazlea gonbidatuko dute. Pamielaren eskutik argitara emandako *Joan-jinaren labirintoa* poema liburua izanen dute hizpide. Biografia atalean, berriz, Jorge Oteiza poeta aipatuko dute. Saioa 23:00etan eskainiko dute, eta igandean goizeko 07:00etan errepikatuko dute.